



ARESOko UDALA

## ALKATE EBAZPENA 16/2021

Areson, 2021eko otsailaren 26an.

### **GAIA: EUSKARA EZAGUTZA BETEKIZUNA IZANEN DUEN ZERBITZU ANITZETAKO LANPOSTUAN HARITZEKO HAUTAPROBEN EMAITZAK**

JOSE OTERMIN ECHARRI, Udalerri honetako Alkateak, Toki- araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.artikuluak onartzen dion gaitasunean oinarritua, honakoa

#### **ADIERAZTEN DU:**

**LEHENENGOA.-** 2021eko urtarrilaren 18ko 4/2021 Alkate Ebazpen bitartez, euskara ezagutza betekizuna izanen duen zerbitzu anitzetako lanpostuan haritzeko hautaproba bidezko izangaien zerrenda osatzeko aukera emango duen deialdia onartu zen.

**BIGARRENA.-** 2021Eeko otsailaren 8ko 9/2021 Alkate Ebazpenaren bitartez, deialdiko hautagaien behin behineko zerrenda onartu eta euskara frogaren data jakinarazi zen.

**HIRUGARRENA.-** 2021eko otsailaren 11an Euskarabideak euskara froga gauzatu zuen eta salbuespen moduan Covid-19agatik ezarritako legezko kuarentena dela eta bigarren data batean, 2021eko otsailaren 25ean, forga egiteko aukera eman zen

**LAUGARRENA.-** 2021eko otsailaren 26eko X /2021 alkate ebazpenean adierazitako emaitzak plazaratu ziren.

Hori guztia aintzat hartuta, ondokoa

#### **EBAZTEN DU:**

**LEHENENGOA.-** Euskara ezagutza betekizuna izanen duen zerbitzu anitzetako lanpoltsa jarraian jasotzen den hautagaien ordenarekin onartzea:

<b>Abizenak</b>	<b>Izena</b>
Zabaleta Garin	Miguel Javier



ARESOko UDALA

Arraras Usabiaga	Luis M <sup>a</sup>
Muxika Alduntzin	Hanot
Ariztimuño Huici	Pedro M <sup>a</sup>
Otermin Eguia	Aritz
Lasarte Baraibar	Jose Luis

**BIGARRENA.**- Lanpoltsa honen kudeaketa deialdiko hamargarren oinarrien arabera gauzatuko da.

**HIRUGARRENA.**- Interesdunei jakinarazi euren ezagutzarako eta behar den tokian ondorio egokiak sor ditzan.

Areson, 2021ko otsailaren 26an

ALKATEA

Jose Otermin Echarri

IDAZKARIA

Inge Zelaia Zubikoa

Horren guztiaren berri izan dezazun eta dagozkion ondorioak sor ditzan jakinarazten dizut; deialdi honen aurka errekurso hauetakoren bat jarri ahalko da:

1.- Aukeran, eta beti ere hilabeteko epean, Berraztertzeko errekurtsua, egintzaren organo egileari zuzendua, edo Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua.

2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, aurreikusitako kasuetan salbu.